

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

ARTEA IKASBIDE: MENDIEKIN ABESTEN

Egilea: IRAIDE SERRANO OLARIAGA

Zuzendaria: CRISTINA ARRIAGA SANZ

Leioan, 2014ko ekainaren 10ean

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA	4
Zer da sormena	4
Sormena eskolan lantzearen garrantzia.....	6
Sormena eta musika.....	8
Haur Hezkuntzako Curriculuma	9
Herri kanta.....	10
Lan proiektuak.....	12
METODOLOGIA.....	13
LANAREN GARAPENA	14
EMAITZAK ETA ONDORIOAK	23
ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK.....	24

ARTEA IKASBIDE

MENDIEKIN ABESTEN

Iraide Serrano Olariaga

EHU/UPV

Lan honek, hezkuntzan sormenak eta musikak duen garrantzia aztertuz eta hauek gelan lantzeak duen abantaila adieraziz, Haur Hezkuntzako gela batean praktikan jarri daitekeen lan proiektua sortzea du helburu. Honez gain, herri kantak zer diren eta lantzearen garrantzia aipatuz, mendizaleen orkestra izendatutako proposamena sortu da, musika, artea eta ingurune hurbila ezagutzeko asmoekin.

Sormena, musika, herri kantak, lan proiektuak

El objetivo de esta propuesta es crear un proyecto de trabajo para un aula de Educación Infantil, analizando la importancia de la creatividad y la música en la educación, y teniendo en cuenta la importancia que tiene ponerlos en práctica. Además, mencionando qué son las canciones populares y la importancia de hacer uso de ellas, se ha creado una propuesta llamada orquesta de montañeros, con la intención de crear un acercamiento a la música, al arte y al entorno cercano.

Creatividad, música, canciones populares, proyectos de trabajo

The goal of this essay is to set up a work-project that can be put into practice on a child education school, analyzing the impact of practicing both music and creativity in class. In addition, adding the mention of popular songs and the importance of practicing theme, it has been created a mountaineer orchestra, in order to know the closest music, art and environment.

Creativity, music, popular songs, work-project

SARRERA

Txosten honetan gradu amaierako lana aurkezten da. Haur Hezkuntzako graduko laugarren mailari bukaera emateko burutua izan da eta jorratzen den gaia ondorengoa da; artea ikasbide izanik, sormena diziplinarteko ikuspegi baten bitartez garatzea. Gaia pertsonalki aukeratu nuen, zerrenda luze batean zeuden aukera desberdinak irakurri ostean lehenengo aukera moduan jarri nuen gai hau jorratzea. Azken urte honetan minor musikala burutzean, sormena eta biziki arakatzeko soilik bizpahiru aukera izan ditugula ohartuz eta honez gain, praktikan igarotako lau hilabeteetan haurrak sormenaz gozatzeko aukerak gehienetan musika gelan eskaintzen zitzaizkiela konturatuz, gradu amaierako lan honetan etorkizunari begira, lanean izango ditudan haurrei gauza bera gerta ez dakieken, sormenaren bitartez gaitasun desberdinak garatzeko lan proiektu bat sortzea otu zitzaidan. Horretarako, lanean agertzen diren pausuak emanik.

Laburbilduz, lehenengo atalean, esparru teoriko eta kontzeptuala ageri da. Bertan gradu amaierako lan hau burutzeko behar izan dudana informazioa bilduz. Alde batetik, autore desberdinek esaten dutena eta bestetik berauen teoriak irakurri ostean pertsonalki barneratzen dudana, esparru horretan ondorengo galderei erantzuten saiatuko naiz: zer den sormena, sormena eskolan lantzearen garrantzia, sormena eta musika, haur hezkuntzako curriculumak dioena, zer diren herri kantak¹ eta zergatik landu haur hezkuntzan eta zer den lan proiektuetan ekitea. Galdera hauei erantzuteko, informazio bilaketa garrantzitsu bat eginen dut, ondoren datorren proposamenaren nondik norakoak zehazteko.

Beraz, lan hau burutzeko erabili den metodologia ondorengoa da, alde batetik bizipen pertsonaletatik abiatuz, sormenaren bitartez ikasteko gogoak bultzatuta eta bestetik iturri bibliografiko sakon bat egin ostean, sormenari leku zabal bat usteko lan proiektuen bitartez lan egiteak aukera ematen duela ohartuta, nire proposamenean

¹ Ideia hau Espainako Ministerio de Economía y Competitividad-ek lagundutako "Música, danza y ritual en el encuentro iberoamericano. El patrimonio compartido y su transcendencia en la educación (HAR2011-30164-C03-03) proiektutik sortu da.

musika eta artea, sormenaren bitartez arakutzen den bitartean, ingurune naturalaz disfrutatzea eta ezagutzea lortu nahi da. Horretarako lanaren garapenean, jarduera desberdinak proposatzen dira, aipatu dudan bezalaxe, alde batetik, praktikan bitartekoak bultzatu izan nauenez lan hau burutzeraz, jarduerak sortzerakoan esparru zehatz batean kokatzea errealtasun gehiago eskaintzen zuenez, diseinatutako jarduerak Berrizen burutzeko eginak izan dira, bertako ingurune naturala kontuan izan baita. Hala ere, ekintza horiek beste ingurune batera moldatzeko aukera egon badago.

Azkenik, gradu amaierako lan hau bukatzerakoan bai pertsonalki zein orokorrean, ondorio eta emaitza baliogarriak ateratzeko esperantza daukat.

ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

Ondoren lanaren esparru teoriko eta kontzeptuarean murgilduko gara, bertan autore desberdinek sormena eta beronen garrantziaz baliatuz, eskolan lantzea duen garrantzia adierazten saiatuko gara. Honen bitartez, musika ere sormena lantzeko erreminta garrantzitsua dela aipatuko da. Azkenik, hau guztia uztartzeko proiektuen bitartez abesti tradizionalak lantzea aukera egokia dela adierazten saiatuko gara.

Zer da sormena

Gilen (2009) ustez, gizakiok berezko nortasuna, sentimenduak adierazteko beharra, informazioa kognitiboki barneratzeko gaitasuna dugun bezalaxe, sortzaileak izateko gaitasuna ere berezkoa daukagu. Sormena gure baitaren adierazpen bat bezalaxe ulertu behar dugu. Sormena alde batera uzten dugunean, ulertu behar dugu, gure gizatasuna gugandik at egiteaz gain pertsonak izateko gaitasuna ere alde batera uzten dugula. Ondoren, sormena lantzearen eta dagokion balioa ulertzeko, sormenaren inguruko zenbait definizio aurkitzen dira.

Sormena zer den definitzeko ez dira soilik hitzak ulertu behar, sormena egunerokotasuneko bizipenak oinarritzat hartuz norberaren nahiak bultzatua,

zalantzen aurrean, mugimenduan jartzen gaituenak, pentsamendu batera eramaten gaituenak, sentimendu bat adierazteak ... biziartzen diguna da (Gil, 2009). Horrexegatik sormena definitzeko, esanahi sortzaileak behar ditugu.

Teorikoki definitzen saiatu ezker, ikuspuntu individual-psikologiko batetik, Rodriguezek (2001) hurrengoko hau dio: ulertzeko bi era mailaka genezake bi kontzeptutan oinarrituz, kronologikoki ematen direnak, bat iraganean eta bestea orainean. Teoria hau definitzeko bi paradigma azaltzen dizkigu, iraganekoa eta orainaldikoa. Lehenengo paradigma, ezohizko paradigma deitzen du. Historikoki, sormenaren nozioa, subjektu apartei eta bikainei loturik zegoela kontuan hartzen zenez, sortzailea izateko gaitasuna gutxi batzuei egokitzen zitzaien, gehienetan arteari loturiko ekintzei. Baina XX. mendean sormenaren kontzeptua erabiltzen hasten dira eta hurrengoko galdera hau sortzen da: zergatik XX. menderarte kontzeptu hau ez da erabiltzen? Arrazoiak erlijioarekin lotura zeukatela esan genezake, tradizio teologiko baten ikuspuntutik mundu honetan sortu zezakeen bakararra Jainkoa zen, beraz gizakiari sortzeko aukera izatea baieztatzea heterodoxiari loturikoa zela uste zuten. Zorionez ikuspuntu honek gaur egun ez dauka indar handirik.

Rodriguez-en arabera bigarren paradigma potentzialtasun paradigma bezalaxe definitzen da . 1950 urtetik aurrera sormena gizakien berezko jarrera bezalaxe ulertzen hasten da (Rieben, 1979). Horrela proposamen desberdinak sortzen dira, aurreko paradigmarekin apurtzen dutenak. Apurketa horrek ikuspuntu barri batera eramaten gaitu, gizakiok sortzeko potentziala badaukagula, testuinguruaren arabera gehiago edo gutxiago garatuko duguna. Beraz, sormena sortzeko alde aurretiko jarrera bezalaxe ulertzeaz gain, gizakia beste izakietatik desberdintzen gaituena da. Errealitatea moldatzeko daukagun berezko gaitasuna da. Horrexegatik, sormena banakako potentzial bezala ulertzeaz gain, gizaki guztietan bizirik dago. Planteamendu hau aitzakia bihurtzen da hezkuntzan helburutzat sormena lantzea izan dezatela.

Sormenaren inguruko paradigmak definitu ostean, beste esanahi mota batzuk definitzen saiatuko gara. Sormena inteligentzia era bat bezalaxe uler genezake. Gardnerrek (2002) sormena inteligentzi aniztun bezalaxe definitzen du, burmuinaren funtzio desberdinak betetzen bai ditu. Beharrezkoa da garapen kognitibo egoki bat

izateko, berau barik pertsonok, soilik maila kognitibo baxu batera iristeko aukera dugulako. Burmuinaren alde sortzaileak kontzeptu abstraktuak azaltzen eta interpretatzen lagundu ahal digu. Horrela izanda, umeek matematika zein zientzia inguruko gaiak barneratzeko erraztasun gehiago daukate.

Vigotskyk (1986) definitutako sormenaren inguruko kontzeptuak ere, pertsona guztiak jaiotzetik sortzeko gaitasuna daukagula dio, ez da pertsona batzuen berezitasuna, baizik eta gizaki guztiak berezkoa daukaguna. Hezkuntzarengandik eta inguratzen gaituztenengandik jasotzen dugun araberakoa izango da gure sormena sustatzeko edo desagerrarazteko aukera. Horrexegatik eskolatik umeen garapen integrala bultzatu behar da, horrekin batera sortzeko gaitasuna, "sormena ikasteko gaitasun bat da" (Burton, Horowitz & Abeles. 1999).

Ondorioz, esan ahal dugu sormena inteligentzia maila bat dela, gizakiok berezkoa daukaguna baina testuinguruaren arabera gehiago edo gutxiago garatuko dugula. Horrexegatik, eskolan hau izan behar dugu kontuan, sormenari lekua utzi nahi badiogu.

Sormena eskolan lantzearen garrantzia

Sormena zer den eta berau eskolan landu beharrekoa dela azaldu ostean, eskolan lantzearen garrantzia azalduko da.

Kontuan izan behar dugu sormena egunerokotasunean ikasteko dugun berezko erreminta dela, horregatik eskolan bere tokia eta denbora eskainiko bazitzaion, ikasleei berauen sormenean gehiago arakatzeko aukera emango zitzaien.

Umeak txikiak direnean, imajinazioa eta fantasia beraien parte dira. Beraiei egokituriko ipuinetan, marrazki bizidunetan eta pelikuletan presente daude, baita joko sinboliko eta pentsamendu preoperatorioan. Eskolara sartzerakoan, imajinazioa eta fantasia kontuan hartzen dira haur hezkuntzako etapetan, baina nagusitzen goazen heinean aipatutako imajinazio eta fantasia balioesten joaten da, geletan ez dago bi kontzeptu hauetarako tokirik. Horrexegatik, fantasiarekin batera sortzaileak ziren ume horiek beraiengan soilik pentsatzen duten umeak bihurtzen dira. Zergatik izan daiteke?

Sir Ken Robinsonek (2009) azaltzen duen bezalaxe, parte handi batean hezkuntza sistema eta eskolak dira honen erantzule, jarraitzen den diseinuak pentsamendu dibergenteak at uzten dituelako eta batzuek erabilgarriak diren jakintzak soilik lantzen dira. Era honetara, lortzen dena hurrengokoa da, prozesu berdinak jarraitzea, emaitza berdinekin eta dena zehaztutako denboran lantzea, ume bakoitzaren indibidualtasun eta originaltasunaren ginetik pasatuz. Horrexegatik, umeak nagusitzen doazen heinean, sortzeko eta irudikatze duten gaitasuna galdu ez dezaten, hezkuntza sisteman eta eskoletan aurrera eramaten diren metodologietan aldaketa bat eman behar da, umeen sormena sustatzeko, estrategi desberdinak erabiliz eta bakoitzaren indibidualtasuna errespetatuz laguntza eskainiz beraien interesak eta ezaugarriak bilatzen joateko. Honez gain, hezitzaileak ere sortzaileak izan beharko dira haurren eredu eta bidelagun izan daitezten. Bidelagun izatean, haur bakoitza bere ezaugarri eta nahien arabera norbere bidea sortzen laguntzeko aukera ematen du.

Kontuan izan behar dugu, estrategi hauek erabiltzean sormena lantzeaz gain beste gaitasun mota batzuk ere lantzen ditugula garapen osoarekin lotura daukatenak. Sormena lantzerakoan umeek aztertzen eta arakutzen duten bitartean oinarri seguru bat sortzen dutelako. Horrexegatik, sormena artea lantzeko garrantzitsua da baina bizitzarako ere, egunerokotasunean suertatzen zaizkigun egoera edo arazoei irtenbidea emateko balio digulako.

Beraz, sormena eskolan landu beharrekoa dela kontuan hartuz eta horretarako hezitzaileak bidelagun izan behar direla ulertuz, Gilek (2009) gelan aurrera eramateko interakzio motak baliogarriak azaltzen ditu hezitzaileek beraien sormena lantzeko eta ikasleen gaitasun eta jarrera sortzaileak sustatzeko. Interakzio erak hauek dira: malgutasuna, jariakortasuna, originaltasuna, lanketa, errealitatearenganako sentiberatasuna, komunikazioa eta eszentrazioa².

² Gilek (2009) gelan aurrera eramateko proposatzen dituen interakzio moten taula, ikus 1. Eranskinean.

Sormena eta musika

Sormena gelan lantzearen garrantzia eta irakasleak horretarako jarraitu ahal dituen jarrera batzuk aipatu ostean, umeekin musika lantzerakoan sormena martxan jartzearen aukera aipatzea garrantzitsua da.

Musika arteari loturiko diziplina dela ulertzen dugu, baita esperimentatzeko aukera gehien ematen dituen, instrumentuekin, gorputzarekin edo ahotsarekin sortutako soinu desberdinen konbinazioa musikatzat har dezakegulako. Gaur egun, musika ulertzeko ikuspuntu zabalagoa daukagu, kultura, garai, toki eta estilo desberdinetako musikak onartzen ditugulako.

Ez dugu ahaztu behar, entzumena dela umeei garatzen duten lehenengo zentzumena, jaio aurretik ere garatzen hasten direlako. Gai direlako bibrazioen bitartez soinuak antzemateko. Geroago, jaio ostean, ikusteko gaitasuna oraindik murriztua denean, entzumena informazioa jasotzeko iturri bihurtzen da, inguruan daukan hori ikusi ezin duenez entzumenarekin ezagutzen duelako. Jaio eta bizpahiru egunetara gai dira pertsonen ahotsak ezagutzeko. Beraz, musikak eta pertsonok daukagun lotura ikusi ostean ulertu dezakegu umeei jaiotzerakoan prest daudela soinuak sortzeko, ulertzeko eta hauengandik erakarriak sentitzeko.

Horrexegatik eskolan musika nola lantzearen ikuspuntuak, analisi sakon bat behar du, Malbranen (2009) ustez, lan bat sortu eta bukatzen duen irakasle batek, bukatutzat eman ahalko du berai umeen garapen sortzailean proiektatzen badu. Era honetara hezitzaileak bere lanaren emaitzak aztertzeaz gain, umeei erabakitzeko, sortzeko, konpontzeko eta probatzeko duten gaitasunak nabaritu ahalko ditu. Hau da, musika gelan lantzen ari garenean umeei bizipen bat sortarazi behar du, beraiengandik arakatzeko nahia piztu behar da. Bai gorputzean sentituz, material desberdina erabiliz, ingurunea aztertuz etab. era honetara umeei barrutik biziko dute musika eta lehen azaldu dugun mundu sortzaile horretan murgiltzeko aukera desberdinak izango dituzte bai ahotsa, elementu edo gorputzeko atal desberdinak erabiliz.

Besteak beste, musikak gure zentzumenetan eragiten duela egiaztatuta ostean, musika entzutean edota sortzean, gaitasun kognitiboak eta pertzepziorako ahalmena

garatzen direla uler genezake. Era berean, prozesu afektiboak eta sozializazioa bultzatzen ditu musikak. Hori dela eta, haurren heziketa prozesuan musika txertatzeak berebiziko garrantzia du; izan ere, irudimena, sormena, sentsibiltatea, arreta, oroimena etab lantzen baitira musikaren bitartez.

Beraz, sormenak umeen garapenean duen garrantzia aipatzeaz gain, musikarekin mundu sortzaile hori bizirik irauteko dugun aukera ulertzen badugu, hau guztia hezkuntza sistemaren baitan landu beharko litzatekeela uler genezake. Horrexegatik, informazio bilduma honetan ezinbestekoa zaigu gaur egungo hezkuntza sistemak musikaren eta sormenaren inguruko datuak izatea.

Haur Hezkuntzako Curriculumak

Musika arloan curriculumari dagokionez, 12/2009 Dekretuak, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza desberdinak ezartzeaz gain, hizkuntza eremuaren baitan ondorengoa aipatzen du. Komunikazioa eta adierazpena banakoaren eta ingurunearen arteko harremanak zabaltzen laguntzea du xede. Hizkuntzak, barneko munduaren eta kanpokoaren arteko lotura dira, errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko tresna egokia direlako.

Eremu honetan biltzen diren hizkuntzak hauexek dira: hitzezkoa, artistikoa, gorputz-hizkuntzarena, ikus-entzunezkoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena.

Beraz lantzean lortu beharreko helburutzat ondorengoa ezarriz, musika-hizkuntzak pertzepzioari, erritmoari, kantuari, soinudun objektuak eta instrumentuak erabiltzean, gorputz mugimenduari eta sorkuntzari loturiko gaitasunak garatzeko aukera ematea. Hau guztia, besteak beste, arretaz entzutetik, aztertzetik, manipulaziotik, soinuetatik eta musikarekin jolastetik sortzen da.

Honez gain, curriculumak beste bi eremu ezartzen ditu; alde batetik, norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala, nortasun pertsonala eraikitzean haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen

interakzioen emaitza da. Interakzioek nor bere buruaren benetako irudia lortzea, autonomia, norberaren gaitasunez jabetzea eta segurtasuna eta auto-estimua sustatu behar dituzte. Eta bestetik, ingurunearen ezaguera, ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruen gaineko ezaguera gero eta doituagoa eraikitzeari dagokio. Errealitatearen adierazpen zehatza egitea, ingurunearen zati garen sentimendua garatzea eta ingurunea osatzen duten elementuak errespetatzea eta haiekiko interesa izatea eta behar bezala balioestea dakar.

Hiru eremu hauek lantzean ondoren azaltzen diren hezkuntza gaitasun orokorretan eragina dauka:

Arduraz bizitzen ikastea	Elkarrekin bizitzen ikastea
Ikasten eta pentsatzen ikastea	Pertsona gisa garatzen ikastea
Komunikatzen ikastea	Egiten eta ekiten ikastea

Beraz, haur hezkuntzako curriculumak musika eta sormenaren inguruan zer dioen ezagututa, esan genezake curriculumak ez duela sormena inteligentzi mota bat bezalaxe ulertzen. Hala ere, berau musikaren bitartez, gelan lantzeko aipamena egiten duenez eta jadanik badakigunez beste zenbait arlo lantzeko ere sormena baliogarria dela, proposamen honetan curriculumak aipatzen dituen hiru eremuak uztartzea dugu helburu, hau da, nortasunean, ingurunean eta hizkuntzari zuzenki loturiko proposamena luzatuko da proiektu honetan.

Herri kantak

Hiru eremu hauek elkarrekin lantzeko herri kanta batekin egitea dugu helburu. Horretarako proiektuan murgildu aurretik garrantzizkoa da, herri kantak zer diren eta berauen garrantzia aipatzea. Herri kantak zer diren eta zertarako balio duten azaltzeko, beharrezkoa zaigu ondare artistikoaz eta kulturaren biziraupenaz hitz egitea. UNESCOk (2005) dioenez, musikari, arteari eta errituei loturiko aipamenak edo ezagutzak betidanik gizartean bizirik dagoen kultur nortasunaren seinale izan dira. Beraz, esparru artistikoa gizarte bakoitzaren kulturaren parte dela esan genezake, gizarte talde bakoitzaren nortasuna zehazten duelarik. Kultur identitatea, bere baitan

identitate musikala dagoelarik, gizarteak sozialki sorturikoa da, horretarako beharrezkoa da elkarrizketa eta besteekin interakzioan egotea. Identitate organiko hau erreferentzi desberdinak jarraituz eraikitzen da. Era honetara soilik bermatuko delako kultur aniztasuneko gizarteetan elkarbizitza positiboa ematea.

Hortaz, haur kantak, hitz jokoak, ipuinak, errefrauek eta jokoak, gizartean kultura eta patrimonio artistikoa bizirik irauten dutenaren seinale dira. Hauek, Pelegrínendako (2006) umeen adierazpenerako eta dantzan murgiltzeko bide dira, hitzekin batera mundu poetiko batean murgilduz. Riaño eta Cabedoren (2013) ustez, egia da tradizio hauen bitartez, historian zehar, ahoz ohituren ezagupenak, bizitzeko erak, baloreak, eginbeharrak etab transmititzeaz gain musikaren ikuspuntutik zonalde eta gizarte bakoitzeko gustuak eta tradizioak ezagutzeko aukera izan dugula. Hezkuntzan era honetako literatura musikala erabiltzea aspalditik eman da. Hezitzaile eta pedagogo ugari herri kantak eskolan lantzean ezagutza ugari barneratzen direla aitortzen dute. Hezkuntzako lehen etapetan, sarritan musika lantzeko erabiltzen dira, eta gizarte desberdinetan pairatzen da efektu hau. Gelan literatura musikal hau irakastearen garrantzia ezagutzea, baloratzea eta praktikan jartzea ezinbestekoa da prozesuen transmisiorako eta patrimonio musikal eta artistikoak gure gizartean bizirauteko.

Ondoren, herri kantak gelan lantzearen garrantzia zehazten da. XX. mendeko lehenengo hamarkadatik musikari eta pedagogo musikariek, gelan musikari loturiko kontzeptuak barneratzeko herri kantak lantzea garrantzitsua zela aipatzen zuten. Diazen (2011) ustez, mota honetako abestiak oroimenarendako estruktura berezi bat daukate, horrexegatik oroimena lantzeko erreminta aproposak dira. Horrez gain, Diazek eta Arriagak (2013) herri kantak hezkuntzan, ezinbesteko elementuak direla aipatzen dute, kultura eta inguruarekin kontaktu zuzena daukatelako eta hezteko instrumentu ezin hobeak direlako, ikasteko eta interpretatzeko momentuan gozatu egiten delako. Ildo honetatik jarraituz, Bártok eta Kodály, Dalcroze eta Orff dauzkagu, hauendako musika tradizionala edo herrikoiak inguruko ezagutzak beraien hezkuntza sistema musikalaren oinarri bilakatzen dira.

Era berean, abestia, musika sortzeko eta ulertzeko era simple eta espontaneoena da. Malbranen (2010) ustez ez da beharrezko azaltzea abestien garrantzia haurren haurtzaroan. Adin tarte desberdinetako umeak behatzearekin nahikoa daukagulako, bai taldeka zein bakarka abesten jolasten baitute. Akoschkyk (2000/2008) aurreko ideia balioztatzen du abestiak irakasteko edo errekonozimendu bat jasotzeko ikus-entzunezko elementuak ez dituela behar aipatzerakoan. Bere ustez, abestiak bere testu, erritmo eta melodiaren bitartez gai direlako pertsonongan irudi eta emozio desberdinak sortarazteko gure baitan.

Lan proiektuak

Azkenik, hezkuntza sisteman herri kantak presentzia izateak, bai kulturalki zein norberaren nortasunean duen eragina azaldu ostean, herri kanta bat oinarritzat hartuz, sormenean murgiltzeko aukera eskaintzen duen lan proiektu bat aurkeztea dugu helburu. Horretarako, esparru teoriko eta kontzeptualarekin bukatzeko, ezinbestekoa da proiektuekin lan egiteak suposatzen duena azaltzea. Feitoren (2009) arabera proiektuekin lan egitea interes gune bilakatzen da, ziklo edo kurtso batean landu beharreko ezagutza, prozesu eta jarrera guztiak edo gehiengoak proiektu batean murgilduta landu ahal direla uste duelako. Horrez gain, proiektuekin lan egiteak eskola osoan irakaskuntza eta jakin-min kognitiboak batera uztartzeko dotea dauka, baita gurasoen parte-hartzea bultzatzeko indarra. Beraz, aipatutakoa kontuan hartuz, proiektuei esker, osotasuna ardatz hartuta lan egiteak, haurren taldean denek gogo biziz onartzen duten proiektu batean murgilduz, era askotariko lanetan inplikatzeari dakar. Honek, irakasle, ikasle eta familiak informazioa jaso eta osatzeko prozesuan murgiltzea dakarrelako. Horrela, haurrek eginiko ekarpenak aintzat hartzen ahaleginduz, ikasgeletako haurren ezaugarriari eta nahiei erantzungo dien materiala bildu eta sortu daiteke, proiektu zehatzari egokitutako tresna pertsonalak osatuz eta prestatuz, ikasleen errealitatearekin inolako zerikusirik ez duten gai aurrefabrikatuei buruzko gidoiak alde batera utziz.

Beraz, haurren proposamenak kontuan hartuz, ikasgelako plangintza eta inprobisazioaren arteko oreka bilatuko dugu. Horrela, haurren adierazpen eta komunikazioaren alderdi desberdinak aztertuko ditugu, beraien desio, beldur eta

zaletasunak ezagutzen goazen heinean. Era honetara, ikasgeletako aniztasunari erantzuna ematea dute helburu era honetako proiektuek, metodo honen bidez, kontuan izan behar dugulako gai desberdinen inguruan, denek dutela esatekorik, denek dakitela, haur bakoitza lanean inplikatu eta aurrera egiten duela bere erritmoan, talde osoaren gozo biziaz animaturik. Honekin batera, kontuan izan behar dugu gurasoen parte-hartzea funtsezkoa dela haurren zalantzei denen artean erantzun egokia emateko. Beraz, denok elkarlanean aritzea eta umeen zalantzak eta jakin-minak kontuan izateak gai anitzak lantzeko aukera ematen digu. Era honetara ez da eremu edo eduki-multzo desberdinen arabera zatiketarik ematen. Proiektu bati ekiten diogunean, era askotariko eta esperientzi eremu anitzeko edukiak biltzen direlako.

METODOLOGIA

Erabilitako metodologia bi iturri desberdinetik eratorria izan da, alde batetik, artea ikasbide lez hartuta sormena diziplinarteko ikuspegi baten bitartez lantzea helburutzat hartuz, berau haur hezkuntzan nola landu daitekeen jakin-minak bultzatuz hainbat gaien inguruko informazioa batu izan da, sormenaren garrantzia, sormenak eskolan duen papera, curriculumak musika eta sormenaren inguruan esaten duena, herri kanten garrantzia etab. Honetarako bilaketa bibliografikoa egin da autore desberdinek esaten dutena kontuan hartuz.

Bestetik, azkenengo lau hilabeteetan bost urteko gelan bizi izandako praktikak bultzatuta sormena eta musikaren arteko uztarketa bat eginez umeek asko disfrutatzen zutela ikusteaz gain, sormenaren bitartez beste hainbat gaitasun garatu ahal zituztela nabaritu izan dut. Horrexegatik, sormena musika ez den beste arlo batzuetan praktikan jartzeko aukera egon beharko litzatekeela uste dut, esparru teorikoan aipatzen den bezalaxe, sormena inteligentzi mota bat dela kontsideratzen badugu materia eta gai desberdinak lantzerakoan landu genezakeelako.

Beraz, ondoren aurkezten den proposamenean erabilitako iturri desberdinak kontuan hartuz, herri kanta batean oinarritutako eta lotura daukaten zenbait jarduera desberdin proposatuko dira, hauen helburua, jarduera desberdinak burutzean umeek beraien sormena erabiltzea delarik. Horretarako, proiektua ingurune fisiko batean kokatu izan dut, ahalik eta errealean izan dadin, Berrizen hain zuzen ere. Praktikak egin ditudan eskola da eta proiektua bost urteko gelan aurrera eramateko proposatu da, era honetan planteatuta egoteak, herriko ingurune natural desberdinez baliatuz eta hauek arakatuz, jarduera desberdinak aurrera eramateko aukera ematen du.

LANAREN GARAPENA

Atal honetan, proiektu honen inguruan egiten dudana proposamena ageri da. Metodologia atalean azaldu dudana bezalaxe, haur hezkuntzan sormena eta musikaren garrantziaz baliatuz, lan proiektuen bitartez jarduera desberdinak proposatuko ditut. Horretarako, esparru fisiko erreal batean kokatu dut proposamena. Praktikak burutu ditudan herria eta eskola oinarritzat hartuz, bertan ikasten duten bost urteko haurrei inguratzen dien ingurune natural aberatsa kontuan hartuz, berau hobeto ezagutzea eta bertako elementu desberdinez baliatuz, sormena errestatzeaz gain biziki disfrutatzea du helburu proposamen honek.

Herriko ingurune naturalaz hitz egiten dugunean, kontuan izan behar dugu Berriz durangaldean kokatzen den herria dela, zonalde honetan aurkitzen diren mendiak eta paisaiak inguratzen dutelarik. Horrexegatik, oso garrantzitsua ikusten dut umeek inguruan duten paisaia ezagutzea eta beronetaz disfrutatzea. Beraz, ondoren aurkitzen diren jardueretan ikusi ahal den bezalaxe, proposamen honetan arlo desberdinak landuko dira, alde batetik ingurunearen ezaguera herriko toki desberdinak bisitatuz eta bestetik, gelan aurrera eramango diren jardueretan ingurune horietan ezagututakoaz baliatuz, sormenarekin eraikiz bai musika, matematika, hizkuntza zein beste arloei loturiko ekintza desberdinak burutuko dira. Horretarako, banaka zein taldeka lan egingo da ume bakoitzaren erritmoa eta nahiak errespetatuz. Era berean,

hezitzailea ere eredu izan beharko da eta bera ere jarduera desberdinak aurrera eramateko sormenez baliatu beharko da.

Proposamenak “Mendizaleen Orkestra” du izena, beroni hasiera emateko aukera aproposa, haurrei gaia abesti baten bitartez aurkeztea da. “Ikusi mendizaleak”³ da aukeratutako abestia, kantuaren letrari erreparatuz naturarekin lotura daukala ikus genezake eta beste alde batetik, abestiaren erritmoa ere alaia dela esan genezake, umeekin bat egiten duena. Kantu hau sarritan proposamenaren oinarri bihurtuko da, sortutako zenbait elementurekin erritmoa askea eta elkarlanean sortutakoa landuko delako. Horrez gain, sarritan abestiaren protagonistak sentitu ahalko gara, txango desberdinak egiten ditugun bitartean abestu dezakegulako. Hala ere, proposamen hau aurrera eraman ahal izateko, sarritan oso garrantzitsua izango da gurasoen parte hartzea, ekintza desberdinak burutu ahal izateko.

Lan proiektu hau bost urteko haurrentzat sortuta dago, lanean jarduteko denbora ez dago guztiz zehaztuta umeen nahiengatik eta interesengatik proposamena luzatu egin ahal delako. Hala ere, hamabi izan dira zehaztutako jarduerak, bata bestearekin lotura dutelarik. Ondoren, laburki ekintzen nondik norakoak eta berauen azalpen labur bat emango da. Gaian murgiltzeko gelara Liliren eskutitz bat iritsiko zaigu, azken egunetan Durangaldeko mendikatean ibili dela esanez. Horrekin batera, alde batetik, umeak herriko ingurune naturala eta paisaiak bisitatzera gonbidatzen ditu, disfrutatu dezaten eta bestetik “ikusi mendizaleak” abestia mendian egon den bitartean sarritan entzun duela adierazten die, beraiek ere abestera gonbidatzen dituelarik. Sarrera gaiari era honetara emango diogu, aukera ematen baitu jakiteko, eskutitza irakurri ostean, beraien herriko inguruaz zer dakiten eta zer ikastea gustatuko litzaieken. Elkarrizketa hau aprobetxatuz, bigarren jardueran murgiltzen joango gara mendien, basoen eta bertan entzuten diren soinuen inguruan zer dakiten eta nondik datozen jakiten saiatuko gara. Aldi berean, mendian nor bizi daitekeen pentsatuko dugu denon artean. Galdera erantzun hauetan murgilduta gauden bitartean, Lilik kontatutakoarekin eta dakigunarekin ipuin antzeztu bat egitea proposatuko zaie.

³ Ikusi 2. eranskinean

Istorioa egunetik egunera eraikitzen joango gara, oinarri moduan “Ikusi mendizaleak” abestia izango dugularik.

Hirugarren jardueran familiaren parte hartzea bultzatuko da. Umeek etxera eramateko gutun bat idatziko dute, bertan, gelara mendi desberdinen argazkiak eraman behar dituztela adieraziz, horrez gain, etxekoei ea zein mendi tontorretara iritsi diren galdetuko zaie. Senideren batek mendian izandako esperientzia umeei helarazi nahi badie, aukera eskainiko zaio gelara etortzeko beraien istorioa kontatzeko. Ondorengo ekintzari sarrera emateko, gelan etxetik ekarritako argazkiak behatuko ditugu eta ume bakoitzak aukera izango du etxean mendien inguruan azaldu zaiena esateko. Horrekin batera, mendiak argazkietan ikusi ostean, oraingoan gure begiekin ikusteko momentua iritsi dela esango zaie. Beraz, euria egin ezkerok euritakoa eta txamarrak hartu eta eguzkia badago txapelak jarri eta Berrizko futbol zelaira txangoa egingo dugu, bertatik durangaldeko mendikatea ikusten baita.



Durangaldeko mendikatea

Ibilalditxoa girotzeko gure abestia kantatzen joango gara. Bertan gaudelarik, umeei parez pare zein mendi dauzkaten azalduko zaie, horiek baitira Lilik aipatutako mendiak. Horrez gain, mendi bakoitzaren altuera eta Lilik esandakoa gogoraraziz, beraien ustez bertan nor bizi daitekeen galdetu ahal zaie. Argazki kamerarekin ere argazkiak aterako ditugu, inprimatu eta gelan itsatsi ahal izateko. Horrez aparte, umeek inguratzen dien inguruko marraskia egiteko aukera izango dute bertan, margolari profesionalen paperean sartu eta parean daukatena orri batean margotuz.

Bosgarren jarduera gelan burutuko da, lehenik eta behin gela etxetik ekarritako eta guk ateratako argazkiez apainduko dugu baita beraiek egindako

margolanekin. Hala ere, Berriztik ikusten den mendikatearen argazki handi bat izango dugu gelan, mendi bakoitzaren gainean dagokion izena eta neurria jarriz. Jarduera honetan, haurrak talde txikietan jartzeko eta behatutako mendiak sortzeko proposamena egingo zaie. Mendien maketak eraiki beharko dituzte, horretarako gelako materiala eta material birziklatua erabiliko dute. Talde bakoitzari mendi baten maketa egitea otuko zaio. Arte lan guztiak amaituta daudenean, talde bakoitzari bere mendiaren aurkezpena egitea eskatuko zaie, zein mendien tartean dagoen esanez eta bere itxuraren zenbait ezaugarri aipatuz, denek mendi desberdinen berri izateko.

Seigarren ekintza ipuin antzeztua zehazteko unea izango da, gelan egunero lantzen saiatuko garen ekintza bat da, umeek egunero ideia berriak emateko aukera izango baitute. Baina, aurreko jarduerak burutu ostean, umeekin jarri eta ipuin antzeztua bideratzen hasteko momentua iritsi dela esango zaie. Kontuan izanik, Lilik idatzitako eskutitza, etxean kontatutakoa, argazkietan ikusitakoa, ibilaldian bizitakoa eta gure abestiak esaten diguna, denen artean antzeztu dezakegun istorio bat sortu behar dugu oraingoan. Horretarako zenbait galderen erantzunak erabili ahal ditugu:

- Nortzuk joaten dira mendira?
- Zer eramaten dugu bertara joateko?
- Jende asko bizi al da mendietan? Eta non?
- Zeintzuk dira hurbilen ditugun mendiak?
- Ze soinu klase entzun ahal ditugu mendietan?
- Zuhaitzak ba al daude mendietan? Eta animaliak? Zeintzuk?
- Mendira joaterakoan nola tratatu behar dugu?
- Pozik joan ezker abestu egiten ahal dugu?

Galdera honen erantzunak jaso egingo ditugu, gero beraiek esandako guztia gogoratu dezaten. Honekin batera, beraiek ipuina eraikitzen hasi beharko dira denen artean istorioa sortuz. Ondoren, bakoitzak bete nahi duen papera hartzeko aukera izango du, beti ere denen artean adostasun batera iritsiz.

Herria ezagutzen jarraitzeko unea iristen da zazpigarren jarduera honetan, horretarako Berrizen dagoen erreka inguruko bidegorritik txangoa egingo dugu, bitartean makilak, hostoak eta harriak jasoko ditugu gelara eramateko.



Errekondoko ibilaldia

Batutakoaz gain etxetik ere harriak ekartzea eskatuko zaie. Materiala ondo zaindu behar dugula azalduko zaie, gerora material horrekin antzezpena girotu ahal izango dugulako.

Ondoren, ibilaldian jasotako hostoak lehortzen jartzeko proposamena egingo zaie haurrei. Horretarako, beraiek nola egingo zuten galdetuko zaie. Beraiek eginiko ekarpenak jasoko ditugu eta talde handian gure proposamena egingo dugu. Egunkariko orrien artean sartuko ditugu hostoak, eta egun batzuetan lehortzen utziko ditugu. Gainean pisua jarri ezker, liburu pisutsu batzuk, esate baterako, leun-leun geldituko dira. Aldaketa nabarmena izango da, eta hortaz hitz egiteko aukera emango digu: bizirik daudenean koloretsu, "hildakoan" zimel, bizitzaren zikloa bera bezala. Hostoak behin lehortuta daudenean, bakoitzak nahi dituen moduan koloreztatuko ditu eta horrekin batera hostoak lehortzeko prozeduran emandako pausuak idatzi egingo ditugu etxekoei nola egiten den azaldu ahal izateko. Loreekin ere prozedura berdina egiten dela gogoraraziz.

HOSTOAK NOLA LEHORTU

HASIERAN:.....*HOSTOAK BILDU.*


ONDOREN:.....*PAPER GAINEAN JARRI.*

SEGIDAN:.....*PISUAREKIN ZAPALDU.*

BUKAERAN:.....*PISUA KENDU.*

Egindako txangoa gogoratuz, ondorengo jardueran, birziklapenaren gaia landuko dugu, gure ingurua garbi mantentzearen garrantzia gogoratuz birziklapenerako ekintza berezi bat burutuz. Horretarako etxekoen laguntza beharrezkoa izango da, material desberdinez eginiko botilak gelara ekartzea eskatuko zaielako (plastiko, kartoi, metal, beira).

Honekin, material bakoitza zein koloretako zakarrontzira bota behar den landuko dugu, erabiliko ditugun botila bakoitzaren behealdean dagokion zakarrontziaren koloretako gometxa itsatsiko dugulako.



Ondoren, botilak apainduko ditugu eta ontzi batzuetan elementu desberdinak sartzeko aukera izango dute (ura, garbantzuek, area ...) beraiek nahi dituzten soinua lortu ahal izateko. Umeei nahi izanez gero, ipuinean ageri daitezkeen doinuak sortzea proposatuko zaie, antzezlanean erabilgarriak izateko. Honekin guztiarekin batera praktiko bat sortzea lortuko dugu, botilak sokekin lotuz.

Ibilaldian jasotako makilei erabilpena emateko sasoia iritsi da hamargarren jarduera honetan, sortutako batera jotzeko eskuak erabiltzeaz gain baketa zoragarriak sortu ahal ditugu. Ume bakoitzari bi makila aukeratzeko proposatu eta hauek beraien gustuen arabera apaintzeko aukera eskainiko zaie.

Hamaikagarren ekintzan errekonduz egindako txangoan jasotako harriak, musika sortzen duten bitxietan sortzea dugu helburu. Horretarako, lehenik eta behin harriak tenperekin edo argizariekin margotuko ditugu. Ondoren, bakoitzaren gustuen arabera, tamainaka koloreka edo nahi duten ordenan kartoi baten gainean itsatsiko dituzte beraien harriak. Hala ere, pare bat harri itsatsi gabe usteko proposatuko zaie, konprobatu ahalko duten bezalaxe harriak bata bestearekin kolpatzerakoan soinua sortzen dituztelako. Horrez gain, itsatsi dituzten harriei soinua atera ahal izateko etxetik metalezko koilara bat ekartzeko eskatuko zaie. Horrela, aukera izango dutelako harriak baketekin, koilarekin eta baita harriekin ere kolpatzeko, soinua desberdinak

sortuz. Jarduera honekin, antzeztuko dugun lana girotzeko beste material berri bat lortzen dugu.

Lan proiektu honi bukaera emateko garaia iritsi da eta gelakide guztien artean sortutako ipuin antzeztuarekin emango zaio bukaera. Antzezlanean, lan proiektuan murgilduta egon garen bitartean sortutako tresna desberdinak erabiliko ditugu berau girotzeko. Adibidez: ipuinean baten bat ibiltzen badao, pausuen soinuak lortzeko harriak kolpatu ahal ditugu; mendian haize ugari dagoela antzemateko putz egiteaz gain, batutako hostoak igurtzi ahal ditugu; bat-batean trumoaia eta txingorra hasi dela adierazteko gure bateria erabili ahal izango dugu ... Hau guztia, umeen sormenaren araberakoa izango da, beraiek baitira antzezpen honen protagonista eta sortzaileak.

Antzezpena, ikusi mendizaleak abestiarekin bukatzeko proposamena egingo zaie, lan proiektu honetan ia egunero landu dugun abestia izango delako eta honezkero berau girotzeko aukera desberdinak badaudela ohartuko direlako. Egunetik egunera, elementu desberdinekin (baketekin; bateria baketekin eta eskuekin joz; harriak beraien artean kolpatuz; harriak koilarekin kolpatuz; gorputzarekin: txaloak emanaz, pausuekin, saltoekin), hau da , gelan sortutako eta beraiengandik irten denarekin erritmo askeak eramateko aukera izan dute, denen artean erritmo mota desberdinak sortuz. Beraz, bukaera borobila emateko, gelan sortu duten ipuin antzeztua alboko gelakoei aurkezteko unea iritsi zaie.

Bukatzeko, hauek izan dira proposatutako lan proiektua burutzeko, sortutako jarduerak. Hasieran azaldu den bezalaxe, jarduera hauen helburua ingurune naturala ezagutzeaz gain, sormena bultzatuz jarduera desberdinak aurrera eramatea da. Atal honetan jarduerak era labur batean azaldu dira, baina lan honen eranskinetan⁴ txertatuta daude jarduera bakoitza banan-banan azalduta. Ahalik eta zehatzago izateko, ekintzen deskribapenerako erabili izan den taulan jardueren inguruko zenbait puntu definitzen ditu. Deskribapenaren eta sormena nola landu daitekeen atalak garrantzitsuenak bilakatzen direlarik, alde batetik batean jardueraren deskribapena eta aurkezpena haurrei nola egingo zaien adierazten delako eta bestetik, proposamen honen helburua jarduera desberdinen bitartez sormena lantzearena delako, eta horretarako jarduera batzuk pentsatu dira, umeek askatasunean eta beraien nahietatik

⁴ 2. Eranskinen sortutako hamabi jardueren taulak txertatuta daude.

abiatuz bai musikaren eta artearen munduan murgiltzeko. Horrez gain, jarduera guztiak eskolan landu beharreko hiru eremuak aldi berean lantzeko aukera eskaintzen dute. Azaldutakoa ahalik eta argien gera dadin adibide bezalaxe, hirugarren jarduera proposatzeko sortu den taula aurkezten da ondoren.

3. JARDUERA
Argazki bilduma
DESKRIBAPENA
Jarduera honek familiaren parte hartzea sustatzea du helburu. Umeek etxera eramateko gutun bat idatziko dute, bertan, gelara mendi desberdinen argazkiak eraman behar dituela adieraziko dute, horrez gain, etxekoei ea zein mendi tontorretara iritsi diren galdetuko zaie. Senideren batek mendian izandako esperientzia umei helarazi nahi badie, aukera eskainiko zaio gelara etortzeko beraien istorioa kontatzeko.
HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
Ekintza honekin familiaren parte hartzea eta umeek egiten dutenaren inguruko interesa sustatzeaz gain. Etxean ere, hurrek gelan lantzen dutenaren inguruan hitz egiteko aukera egon dadila bultzatzen da. Honez gain, Lilik kontatutako istorioa soilik entzuteaz aparte, mendian eta basoan beste pertsona batzuek bizitako istorioak entzuteko aukera izango dute.
LANTZEN DIREN GAITASUNAK
Arduraz bizitzen ikastea Ikasten eta pentsatzen ikastea Komunikatzen ikastea Elkarrekin bizitzen ikastea Pertsona gisa garatzen ikastea Egiten eta ekiten ikastea
ZERIKUSIA DUTEN EREMUAK ETA HORIETAN LANDU DAITEZKEEN EDUKIAK
Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala - Jarduera eta egunerokotasuna

- Norberaren zaintza eta osasuna

Ingurunearen ezaguera

- Elementuak, harremanak eta neurria
- Natura ezagutzen hastea
- Kultura eta bizitza gizartean

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

- Hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea
- Ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

SORMENA LANTZEKO EMATEN DIREN AUKERAK

Kontuan izan behar dugu, bost urteko gelan haur batzuek idazten badakitela eta beste batzuk oraindik ez dakitela. Beraz, etxera eramateko eskutitza haur guztiek idatziko dute, baina hezitzaileak umeei idatzitako eskutitzaren atzealdean argitasunez idatziko du jaso beharreko mezua. Horrela, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuko dugu, inolako presiorik sortu gabe, badakigulako batzuk bokalak soilik identifikatuko dituztela eta beste batzuk letra guztiak desberdintzeko gai izango direla. Honez gain, hurrek etxean gelan lantzen ari garen munduan murgiltzeko aukera izango dute, hurrengo egunean ideia berriak gelakideei helaraziz.

Kaixo familia!

Gelara mendien eta basoen argazkiak ekarri.

AUKERA DIDAKTIKOAK

Materiala: papera eta arkatza.

Espazioa: gela.

EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Atal honetan, marko teorikoa eta lanaren garapena azaldu ostean, aipatu diren gaiak aztertzean ateratako ondorioak ageri dira:

- Hezitzaileak ere sortzaileak izan beharko dira haurren eredu eta bidelagun izan daitezten. Bidelagun izatean, haur bakoitza bere ezaugarri eta nahien arabera norbere bidea sortzen laguntzeko aukera ematen duelako.
- Esan ahal dugu sormena inteligentzia maila bat dela, gizakiok berezkoa daukaguna baina testuinguruaren arabera gehiago edo gutxiago garatuko dugula. Horrexegatik, eskolan hau izan behar dugu kontuan, sormenari lekua utzi nahi badiogu.
- Haur kantik, hitz jokoak, ipuinak, errefracuak eta jokoak, gizartean kultura eta patrimonio artistikoa bizirik irauten dutenaren seinale dira.
- Sormenak umeen garapenean duen garrantzia aipatzeaz gain, musikarekin mundu sortzaile hori bizirik irauteko dugun aukera ulertzen badugu, hau guztia hezkuntza sistemaren baitan landu beharko litzatekeela uler genezake.
- Proiektuekin lan egitea interes gune bilakatzen da, ziklo edo kurtso batean landu beharreko ezagutza, prozesu eta jarrera guztiak edo gehiengoak proiektu batean murgilduta landu ahal direlako. Horrez gain, proiektuekin lan egiteak eskola osoan irakaskuntza eta jakin-min kognitiboak batera uztartzeko dotea dauka, baita gurasoen parte-hartzea bultzatzeko indarra
- Denok elkarlanean aritzea eta umeen zalantzak eta jakin-minak kontuan izateak gai anitzak lantzeko aukera ematen digu.

Azkenik, ondorioak aipatutakoak badira ere, egia esan proiektu honen hasieran, ez zegoen oso argi zeintzuk izango ziren aterako genituen ondorioak, gaia sakondu gabe zegoelako. Baina, marko teorikoa sakontzerakoan ideia eta datu ezezagun ugari aurkitu dira eta horrek lanari zentzua emateko lagundu du.

ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

- Akoschky, J. (2000). *Música en el Nivel Inicial en GCBA (2000) Diseño Curricular para la Educación Inicial. Niños de 2 y 3 años; Niños de 4 y 5 años*. Buenos Aires, Argentina.
- Beetlestone, F. (2004). *Niños creativos, enseñanza imaginativa*. Madrid. La Muralla.
- Díaz, M. (2011). Una educación musical por la diversidad y para la integración cultural. En Jean Vallés, Dolores Álvarez y René Rickenmann (ed.) *L'activitat docent. Intervenció, innovació, investigació*. Girona: Documenta universitaria, 297-305.
- Díaz, M. & Arriaga, C. (2013). Canciones tradicionales en el aula infantil. En busca del patrimonio heredado. [*Espacio y Tiempo: Revista de Ciencias Humanas*,\(27\), 5-7](#)
- Feito, R. (2009). *Escuelas democráticas*. Revista de la asociación de Sociología de la Educación, vol.2, núm. 1. {04: 17-33}
- Gardner, H. (2002). *Las inteligencias múltiples: la teoría en la práctica*. Barcelona: Paidós.
- Gil, P. (2009). *Estimular la creatividad en la clase de música*. *Creatividad y Música. Revista Creatividad y Sociedad*. Profesora Superior de Música en la Escuela de Música de Güímar. Tenerife, España.
- Haur Hezkuntza 12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen.(EHAA 2009-01-30)
- Malbrán, S. (2009). *La creatividad de los maestros y la educación musical*. *Creatividad y Música. Revista Creatividad y Sociedad*. Universidad Nacional de la Plata. Buenos Aires, Argentina.
- Malbrán, S. & García, E. (2010). Lenguaje musical y Didáctica: Tiempo y estructura métrica en María Elena Riaño y Maravillas Díaz. *Fundamentos musicales y didácticos en educación Infantil*. Santander: Publican, 109-153.
- Pelegrín, A. (2006). Literatura de tradición oral, en Díaz, J.; Pelegrín, A.; Beltrán, J.M.; Zamora, A. (ed.): *Folklore musical infantil*. Madrid. Akal.
- Riaño, M.E. & Cabedo, A. (2013). *La importancia del patrimonio musical en el aula. Estudio sobre la opinión del profesorado en educación infantil*. Eufonía. Didáctica de la música.

Robinson, K. (2009) (<https://www.youtube.com/watch?v=nPB-41q97zg>). Kontsulta: 2014/5/21)

Rodríguez, A. (2001). *Futuro y creatividad: una mirada prospectivo-social sobre la creatividad. Creatividad y sociedad: hacia una cultura creativa en el siglo XXI*. Barcelona: Octaedro/IPSMA.

UNESCO (2005). *Convención sobre la Protección y Promoción de la Diversidad de las Expresiones Culturales*. París.

Vigotsky, L. (1986). *La imaginación y el arte en la infancia*. Madrid: Ediciones Akal.